

# Behoerrotta etxebizitza

Aldacrak:  
Ahozkoa: Bekórrotta



43° 9' 57"

2° 33' 39"

Berriz Iruditan / K. Amezua

“... la casería rústica titulada Molino de abajo... radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con lo que ocupa el edificio y sus antusanos ciento treinta y seis estados poco más o menos, equivalentes a quinientos diez y siete metros trescientos cuarenta y cuatro milímetros de cabida... y se compone de su maquinaria, cuadras, pisos, divisiones y habitaciones...”  
DJE 3/2 or. (1870)

Uribe aldean *Zaldúa* errekaen urak aprobetxatzen zituen beheko errota da honako hau. XIX. mendearen erdialdean topatzen ditugu lehen aipu dokumentalak: *Becoerrotta* (1857, BUA, Viv) eta *Becoerrotta* (1859, BUA, Nmcr). 1870. urtean jabego-eskiriturretan gaztelaniazko era topatzen dugu, hots, *Molino de abajo* (1870, DJE, 3/ 2. or.), Uribe inguruan aurkitzen den *Goikoerrotta* (**Ikus Goikoerrotta**) edo *Molino de Arriba* delako erroetatik bereizteko. Salbuespen hori kenduta, hortik aurrera forma berdinak aurkitzen ditugu; *Beco Errotta* (1905, BUA, 40. or.), *Becoerrotta* (1928, BUA, 32. or.) eta *Becorrotta* (1967, BUA, CE) dira horren adibide. Auzotarren artean, *Bekórrotta* da formarik erabiliena.

Izenak adierazi moduan, errota izandako erai-kina da, guztiz eraberritu dutena, aurretik ere hainbat berrikuntza izan ondoren. Azkenean entokadura guztia, estilo arrazionalistako

## toponimia

Izen honen esangurak ez du aparteko azalpenik behar baina interesgarria da errota hitzaren historia. Hitza latinetik hartu genuen euskaldunok eta gaztelaniazko *rueda* hitzaren jatorri bera du, *rota*. Hala ere, mendabaldeko Euskal Herrian bolu hitza erabili genuen lehenago eta hor dugu Bolibar, esaterako. Latinetik hartzea logikoa da erromatarrek heldu aurretik bestelako errota, eskuz mugitzen zirenak, erabiltzen ziren eta. Erroten kasuan, beste edozein eraikin baino arruntagoa da izen berezirik ez izatea eta errota edo Goiko, Beheko eta abar deitzea.

balkoiak eta begiratokia kendu dizkiote, baita ezker aldean zegoen atea ere. Oso interesgarriak dira eskuma aldean desestali den errota-aren estoldaren ganga eta antapara. Etxea eta jatorrizko errota bateratuta badaude ere, harriaren kalitateak produkzioarako gunea ondo taxututa zegoela argi uzten du. Harlanduzko leiho bi ditu ostean, arkuaren gainean, eta kantalak ere horrelakoak ditu, XVIII. mendeko estiloei jarraituz. Etxea ere harrizkoa da; baina baoek, esaterako, egurrezko dintelak dituzte.

Fatxada nagusiak beranduago jasotakoa dirudi, eta, neurri batean, simetrikotasuna gordetzen du, errota alde zabalagoa izanik. Indarra erdialdean dauka jarrita, egurrezko dintela duen atartearen gainean. Hor jarri zituzten balkoiak: luzeagoa lehenengo solairuan, eta motzagoa, berriz, ganbaran. Izkinetan, aldiz, leihoak ditu. Bi isurkiko teilatua dauka.